

Berraztertze errekurtsua

TXOSTEN JURIDIKOA

Aurrekariak

Lehenengoa.- Tokiko Gobernu Batzarrak, 2020ko urtarrilaren 28an hartutako erabakiaren bidez, gas naturala hornitzeko esparru-akordiotik eratorritako kontratua MULTIENERGIA VERDE S.L enpresari esleitzea erabaki zuen, 2020. eta 2021. urteetarako.

Bigarrena.- Aipatutako enpresak, Udal Diruzaintzan 5.371,90 euroko behin betiko bermea eratu zuen, banku abalaren bidez.

Hirugarrena.- Gas naturalaren prezioa izugarri igotzearen ondorioz, MULTIENERGIA VERDE S.Lk (Bizkaiko Foru Aldundia eta haren foru-erakundeak gas naturalez hornitzeko esparru-akordioaren esleipendunak, bai eta atxikitako toki-erakundeak ere), Bizkaiko Foru Aldundiari hornidura eteteko erabakia jakinarazi dio, hau da, esparru-akordioak eta kontratu eratorriak ebaztea.

Laugarrena.- Jakinarazpen hori 2021eko urriaren 1ean jaso da posta elektronikoz, eta kontratua suntsiarazteko ustezko ezinbesteko arrazoiak alegatzen dira; izan ere, eskaintako prezioekin, enpresa esleipendunari kostu handia suposatuko litzaioke prestazioarekin jarraitzea. Arrazoi hori dela medio, kontratua 2021eko urriaren 7an amaitu da, enpresak hartutako alde bakarreko erabakiaren ondorioz.

Bosgarrena.- 2021eko azaroaren 24ko 4432 zenbakidun Alkatetza Dekretu bidez, kontratua suntsiarazteko espedientea irekitzea erabaki da, enpresak kontratua gauzatzeari alde bakarrez uko egin diolako, eta, horren ondorioz, 5.371,90 euroko behin betiko bermea konfiskatzea (banku abala). 10 eguneko epea eman zaie interesdunei (kontratistari eta abal-emaileari) alegazioak aurkezteko.

Seigarrena.- MULTIENERGIA VERDE S.Lk alegazioak aurkeztu ditu bermea konfiskatzeari, 2021eko abenduaren 2ko dataz.

Zazpigarrena.- Espedientea Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari (COJUA) bidaltzen zaio 2021eko abenduaren 3an, SPKLren 191. artikuluan eta 1098/2001 Errege Dekretuaren 109. artikuluan xedatutakoa betez.

Zortzigarrena.- 2022ko otsailaren 11n, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren 18/2022 Irizpena jaso da. Irizpen horren arabera, SPKLren 211.1.f) artikuluan aurreikusitako kausagatik suntsiarazi behar da kontratua eta behin betiko bermea konfiskatu; izan ere, organo aholku-emaileak ustekabeko arrisku batean oinarritutako enpresa kontratistaren argudioak atzera bota ditu.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikokoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E60008FDC00Y6M2N3Z6J8F0

Sinadurea eta data
NEREA LOPEZ ANGULO-IDAIZKARITZAKO A.O.T - 22/03/2022
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 22/03/2022 12:32:17

EXPEDIENTE ::
2019KON_ZEN_0003
Data: 20/05/2019
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikokoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E60009004F0012M2C3M0W1F5

Sinadurea eta data
JURDANA URIARTE LEJARRAGA-IDAIZKARI NAGUSIA - 23/03/2022
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 23/03/2022 08:49:37

EXPEDIENTE ::
2019KON_ZEN_0003
Data: 20/05/2019
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia



CSV: 07E60008FDC00Y6M2N3Z6J8F0
0009004F0012M2C3M0W1F5

Bederatzigarrena.- Aurrekoaren ondorioz, 2022ko otsailaren 14ko 439 zk. Alkatetza Dekretu bidez, 2020. eta 2021. urteetarako gas naturala hornitzeko esparru-akordioaren kontratu deribatua suntsiaraztea eta bermea konfiskatzea erabaki zen.

Hamargarrena.- 2022ko martxoaren 14an eta 2966 erregistro zenbakiarekin, MULTIENERGIA VERDE, S.L berraztertze errekurtsua aurkeztu du aipatutako 439 zenbakidun Alkatetza Dekretuaren auka.

Aplikagarria den araudia

- 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora (SPKL).
- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearena.
- 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzkoa.

Zuzenbideko oinarriak

Lehenengoa.- Alderdi formalak

Berraztertze errekurtsu baten ebazpenari buruzko txostena egiteko, hainbat gogoeta egin behar dira errekurtsu horretan dauden prozedurazko alderdiei eta alderdi materialei buruz.

Prozedurazko edo formazko alderdiei dagokienez, aipatzekoa da aukerako berraztertze errekurtsua jartzeko interesduna izan behar dela, 39/2015 Legearen 112. artikulua adierazten duen bezala. Kasu honetan, errekurtsogilea halakoa da, kontratua suntsiaraztea eta behin betiko bermea konfiskatzea adostu zen espedientean ere hala baitzen.

Aurrekoa kontuan hartuta, MULTIENERGIA VERDE, SL enpresari legitimazio aktiboa aitortzen zaio aukerako berraztertze errekurtsua jartzeko.

Bestalde, aurkeztutako errekurtsu-idazkia aztertu ondoren, ikusi da bete egiten dituela 39/2015 Legearen 115.1 artikuluan ezarritako forma-baldintzak, eta, gainera, lege horren 124.1 artikuluan aurreikusitako hilabeteko epearen barruan aurkeztu dela. Horregatik guztiatik, bidezkoa da izapidetzea onartzea.

Era berean, errekurtsua ebatzi eta ebazpena jakinarazi beharko da, gehienez ere hilabeteko epean, errekurtsua jarri eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita¹, aipatutako

¹ Epe hori eten egin da ebazpena gaztelaniara itzultzeko eskaeraren ondorioz.

CSV: 07E6008FDC00Y6M2N3Z6J8F0

0009004F0012M2C3M0W1F5



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E60008FDC00Y6M2N3Z6J8F0

Sinadurea eta data
NEREA LOPEZ ANGULO-IDAIZKARITZAKO A.O.T - 22/03/2022
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 22/03/2022 12:32:17

EXPEDIENTE ::
2019KON_ZEN_0003
Data: 20/05/2019
Lekua: Bermeon
Erregistro unidea:
Erregistro nagusia



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E60009004F0012M2C3M0W1F5

Sinadurea eta data
JURDANA URIARTE LEJARRAGA-IDAIZKARI NAGUSIA - 23/03/2022
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 23/03/2022 08:49:37

EXPEDIENTE ::
2019KON_ZEN_0003
Data: 20/05/2019
Lekua: Bermeon
Erregistro unidea:
Erregistro nagusia

legearen 124.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, eta betiere gehieneko epea igarotzeari eragin diezaioketen etendurak kontuan hartuta.

Errekurtsoa ebazteko organo eskudunari dagokionez, 39/2015 Legearen 123. artikulua ezartzen du aurkaratutako egintza eman zuen administrazio-organismoari dagokiola, kasu honetan alkatetzari.

Bigarrena.- Alderdi materialak

Alderdi materialei dagokionez, txostenaren xede den kasu honetan errekurtsogileak eskatu du deuseztatu dadila Alkatetzaren 2022ko otsailaren 14ko ebazpena, aurkeztutako alegazioak ukatu eta kontratistari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik kontratua suntsiarazi zuena, eta behin betiko bermea konfiskatu zuena.

Errekurtso hori ikusita, aurkeztutako alegazioak aztertuko dira hurrengo lerroetan:

- a) Hornitzen jarraitzeko ezintasuna. Kontratuari nahitaez uko egitea. Kontratua suntsiarazi beharra

MULTIENERGIA VERDE, S.L.k adierazi du kontratuari behin betiko uko egin behar izan ziola, honako hau alegatuz:

“Dada su imposibilidad absoluta para continuar con el suministro (...) como consecuencia de la situación actual de crisis energética, que ha provocado un crecimiento exponencial de los precios de la energía sin precedentes, su proveedor le resolvió, por causa de fuerza mayor, el contrato de aprovisionamiento de gas a precio determinado, que tenía con él suscrito, que le aseguraba la capacidad de suministro de gas a sus clientes, sin que el precio del gas al que lo adquiriría para su posterior suministro pudiera verse afectado durante la vigencia del contrato por las oscilaciones del mismo.”

Jarraian adierazi duenez, hornitzaileak kontraturiko gasa hornitzeari utzi zion, eta indar-kausaren klausula aktibatu zuen, aldeek sinatutako hornikuntza-kontratuan agertzen dena (MULTIENERGIA VERDE SL eta hornitzailea).

Era berean, MULTIENERGIA VERDE, SL enpresak hornidura alde bakarretik uztea justifikatzen du, honetan oinarrituta:

“Ante la resolución súbita y sin preaviso del contrato de suministro de gas por su proveedor, en virtud del cual Multienergía Verde, S.L. compraba el gas al precio previamente pactado en el mismo, gas que, a continuación, suministraba a sus clientes, entre otros al Ayuntamiento de Bermeo y, ante la inviabilidad absoluta de acudir al mercado SPOT para adquirir gas para atender el suministro contratado, ya que el precio del gas en el mercado del gas (MIBGAS) asciende a un importe que multiplica exponencialmente el precio del gas fijado en el contrato suscrito con el Ayuntamiento de Bermeo y, añadiendo a lo indicado, el hecho de que para adquirir dicho gas

CSV: 07E6008FDC00Y6M2N3Z6J8F0
0009004F002M2C3M0W1F5



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E60008FDC00Y6M2N3Z6J8F0

Sinadurea eta data
NEREA LOPEZ ANGULO-IDAIZKARITZAKO A.O.T - 22/03/2022
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 22/03/2022 12:32:17

EXPEDIENTE :: 2019KON_ZEN_0003
Data: 20/05/2019
Lekua: Bermeon
Erregistro unida: Erregistro nagusia



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E60009004F002M2C3M0W1F5

Sinadurea eta data
JURDANA URIARTE LEJARRAGA-IDAIZKARI NAGUSIA - 23/03/2022
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 23/03/2022 08:49:37

EXPEDIENTE :: 2019KON_ZEN_0003
Data: 20/05/2019
Lekua: Bermeon
Erregistro unida: Erregistro nagusia



Multienergía Verde S.L. hubiera debido constituir unas muy onerosas garantías, es evidente que para Multienergía Verde S.L. era imposible seguir suministrando gas y garantizar el suministro al Ayuntamiento de Bermeo."

Aurrekoa kontuan hartuta, MULTIENERGIA VERDE, SL enpresak honako hau argudiatzen jarraitzen du: *"(..) Esta circunstancia exonera a Multienergía Verde, S.L. de toda culpa por la suspensión del suministro al que se ha visto obligada, no procediendo por tanto reclamación por posibles daños y perjuicios causados."*

Bada, ondorio hori ezin da inola ere partekatu ondoren adieraziko den guztian oinarrituta:

Lehenik eta behin, kontratu publiko baten esleipendunen hornikuntzari lotutako zirkunstantziak edo gorabeherak ezin dituzte kontratu-betebeharrak edo kontratua ez betetzearen ondoriozko erantzukizunak salbuetsi. MULTIENERGIA VERDE, SL enpresak bere hornikuntza-kontratua suntsituta ikusi bazuen, merkatura joan behar izan zuen beste hornitzaile bat aurkitzeko, eta horrek hornikuntza-kostu handiagoa ekartzen bazion, aurreko hornitzaileari jasanarazi behar zion kanpokotasuntzat hartu behar da, Bermeoko Udalarekin ezarritako kontratu-harremanari eragin gabe.

Kontua ez da merkatuan hornitu ezin zela, baizik eta, besterik gabe, garestiagoa egiten zitzaiola, eta hori ez da hornikuntza uzteko arrazoi baliozkoa.

Bigarrenik, kontuan izan behar da esleipendunak hornidura uztea justifikatzen duen ezinbesteko kasu bat dagoela alegatzen duela. SPKLren 239. artikulua ezartzen duenez, kontratistaren kalte-galerak ezinbesteko kasu baten ondorioz sortzen badira, administrazio kontratatzaileak kalte-ordainak eman beharko ditu, eta, ondoren, ezinbesteko kasutzat jo daitezkeen kasuak tipifikatu beharko ditu, besteak beste:

- Atmosferako elektrizitateak eragindako suteak.
- Ondorio katastrofikoak eragiten dituzten fenomeno naturalak, hala nola, itsasikarak, lurrikarak, sumendi-erupzioak, lur-mugimenduak, itsas denboraleak, uholdeak edo antzekoak.
- Gerra-garaian bortizki eragindako kalteak, lapurreta iskanbilatsuak edo ordena publikoaren asaldura larriak.

Hala ere, legeak salbuespen hori obra-kontratuari egiten dio, SPKLren 197. artikulutik 239. artikulura eta, halaber, obrak egiteko eta ustiatzeko emakida-kontratuak.

Nolanahi ere, kasu honetan ezinbertzeko kasu bat dagoela eta kontratistak behin eta berriz eman duen argudioa ezeztatzeko, esan behar da jurisprudentzia finkatuak ezinbesteko kasuak zehaztu dituela, honela: *"aquellos factores imprevisibles, anormales en el desarrollo propio de la naturaleza de las obras y ajenos a la voluntad y comportamiento del contratista, que inciden negativamente en la ejecución del contrato, suponiendo para el mismo un agravamiento sustancial de las condiciones, que*



Agiri hau benetako dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E60008FDC00Y6M2N3Z6J8F0

Sinadurea eta data
NEREA LOPEZ ANGULO-IDAIZKARITZAKO A.O.T - 22/03/2022
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 22/03/2022 12:32:17

EXPEDIENTE :: 2019KON_ZEN_0003
Data: 20/05/2019
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea: Erregistro nagusia



Agiri hau benetako dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E60009004F00I2M2C3M0W1F5

Sinadurea eta data
JURDANA URIARTE LEJARRAGA-IDAIZKARI NAGUSIA - 23/03/2022
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 23/03/2022 08:49:37

EXPEDIENTE :: 2019KON_ZEN_0003
Data: 20/05/2019
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea: Erregistro nagusia

CSV: 07E60008FDC00Y6M2N3Z6J8F0



por exceder de las contingencias propias del riesgo asumido en la contratación, se contemplan específicamente por la ley a efectos de restablecer el equilibrio financiero del contrato, como principio sustancial en materia de contratación” (Auzitegi Gorenaren 2018ko otsailaren 13ko epaia, 2015eko martxoaren 15eko 2832/2015 epaira igorrita).

Era berean, jurisprudentzia horrekin bat etorritik, betebeharra betetzen jarraitu ahal izan den kasuetan, dela prezio batean, dela baldintza desberdinetan, ezinbesteko kontzeptuaren aplikazioa ezinezkoa da ikuspegi juridikotik. Zorduna ezin dela bete hautemateko, jurisprudentziak eskatzen du zordunak behar bezalako arreta izan dezala, ahal duen gutzia eginez hura garaitzeko.

Orain arte azaldutakoaren arabera, eta kasu konkretu bakoitzean ezinbestearen determinazioa egin behar dela kontuan hartuta, haren norainokoari eta edukiari buruzko teoria bateraturik onartu ezin denez, ondoriozta daiteke argudiatutako kasua ez dela ezinbesteko kasua. Energia-krisiak eta gasaren prezioen igoerak ez dute lekurik SPKlk aurreikusitako kasuetan, eta, doktrina- eta jurisprudentzia-erakuntzaren arabera, ez du esan nahi kontratua ezin denik bete.

Hirugarrenik eta azkenik, kontuan izan behar da esleipendunak ez ziola administrazio honi jakinarazi hornikuntzarekiko eragina, eta ez zuela eskatu kontratuaren oreka ekonomiko-finantzarioa birdefinitzeko mekanismorik. Era berean, ez zion udalari jakinarazi eta ez zuen egiaztatu hornitzaile alternatibo bat aurkitzeko egin zuen inolako kudeaketarik, ezta hornikuntza horretarako ordaindu behar zituen prezioak ere. Besterik gabe, alde aurretik jakinarazi eta kudeatu gabe, uko egin eta horniketa astebete lehenago utzi zuela jakinarazi zuen. Ez zuen nahi izan edo eskatu administrazio honekin edozein kudeaketa, prozedura edo izapide hastea kontratua aldatzeko, oreka ekonomiko-finantzarioa berrezartzeko edo hornidura aldi baterako eteteko. Zuzenean amaitutzat eman zuen, alde bakarrez.

Horrexegatik hasi zuen Bermeoko Udalak kontratua suntsiarazteko prozedura, kontratistaren erruz, kontratu-prestazio nagusia ez betetzeagatik.

Aurreko guztia kontuan hartuta, ondorioztatu behar da, kontratuaren izaerarekin eta aplikatu beharreko araudiarekin bat etorritik, esleipendunak lehengaien hornikuntzan duen eragina ezin dela izan horniduraren alde bakarrek ukoa justifikatzen duen arrazoi bat, eta, beraz, ezin da onartu esleipendunaren alegazioa.

b) Ezinbesteko arrazoiak. Ez-betetze ez-egozgarria. Penalizazioen desegokitasuna
Bigarren alegazioan, esleipendunak azpimarratu du hornidurari uko egitea eragin zuen arrazoa gas naturalaren hornikuntzarik ezari lotutako ezinbesteko kasu bat izan zela, prezio igoera ezohikoa dela eta.

Berrito esan behar dugu kontratu publiko baten esleipendunaren hornikuntzari lotutako zirkunstantziek edo gorabeherek ezin dutela beren kontratu-betebeharretatik edo kontratua ez betetzearen ondoriozko erantzukizunetik salbuetsi.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E60008FDC00Y6M2N3Z6J8F0

Sinadurea eta data
NEREA LOPEZ ANGULO-IDAIZKARITZAKO A.O.T - 22/03/2022
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 22/03/2022 12:32:17

EXPEDIENTE :: 2019KON_ZEN_0003
Data: 20/05/2019
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia



CSV: 07E60008FDC00Y6M2N3Z6J8F0
0009004F0012M2C3M0W1F5



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E60009004F0012M2C3M0W1F5

Sinadurea eta data
JURDANA URIARTE LEJARRAGA-IDAIZKARI NAGUSIA - 23/03/2022
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 23/03/2022 08:49:37

EXPEDIENTE :: 2019KON_ZEN_0003
Data: 20/05/2019
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia



Zentzu horretan, gogorarazi behar da SPKLren 189. artikulua kontratuaren alderdiek kontratuaren edukiarekin duten loturari buruz hitz egiten duela, eta hitzemandako betebeharrak bete behar dituela, "pacta sunt servanda" printzipioaren arabera. Artikulu horrek honako hau adierazten du: *"Los contratos deberán cumplirse a tenor de sus cláusulas, sin perjuicio de las prerrogativas establecidas por la legislación en favor de las Administraciones Públicas"*.

Aurreko atalean aipatu dugun moduan, ezinbesteko kasuak ez du lekurik kasu honetan. Izan ere, zuzenbide pribatuaren arabera ere, alegatutakoa bezalako egoera bat ezin da ezinbestean identifikatu. "Casum sentit dominus" printzipioa, ezinbertzeko kasuetan, betebeharra bete ezin denean bakarrik laga daiteke. Hala adierazten du Auzitegi Gorenak (Arlo Zibileko Salak) uztailaren 13ko 637/1999 epaian, honako hau zehazten baitu ezinbesteko kasuari buruz: *"su carácter absoluto productor de un incumplimiento legal de las obligaciones."*

Izan ere, jurisprudentziak ezinbesteko baldintza gisa eskatzen du egitatea, aurreikusi ezina izateaz gain, saihestezina, gaindiezina eta jarkiezina izatea, eta, Kode Zibilaren 1182 eta 1184 artikuluen arabera, alde aurretik hartutako betebeharrak bat betetzea edo betebeharraren sorrera eragozteko ezinezko egiten duenean. 1902 eta 1903, eta Kode substantibo beraren ondorengoak, gerta daitezke, eta sortutako kaltearen eta eragin zuen gertaeraren artean kausalitate-lotura eraginkorra egon behar da (Auzitegi Gorenaren epaia, Arlo Zibileko Sala, 1980ko azaroaren 18koa).

Horrenbestez, oraingo bezalako kasu batean, non obligazioa betetzen jarraitu ahal izan den, beste prezio baten truke edo baldintza desberdinetan, ezinbertzearen kontzeptuaren aplikazioa ezinezkoa da ikuspegi juridikotik.

Bestalde, ezin dira onartu hornidura batek beste hornitzaile baten bidez eragindako kalte ekonomikoari buruzko aipamen jarraituak ere, esleipendunarekin gas naturalaren hornikuntza-kontratua ebatztean; izan ere, hornidura berria erosteko edo finkatzeko ez da inolako kudeaketarik egiaztatzen, ezta administrazio honekin gas naturalaren hornidura bertan behera uzten den egunean ere, prezioak berrikusteko eskatu denik. Azken horrek, zalantzarik gabe, kalte ekonomikoa minimizatu ahal izango luke.

Aurreko guztiak eraman behar gaitu, berriz ere, alegazio hori aintzat ez hartzea.

c) Arriskuaren eta menturaren printzipioaren aplikaezintasuna. Ustekabeko arriskuaren doktrina. Zigorren desegokitasuna

Alegazio horri dagokionez, aurreikusi ezin den arriskuaren doktrina aipatzen du, «Rebus sic stantibus» printzipioarekin lotuta dagoena. Hori oinarri hartuta, uste du kontratua gauzatzeko baldintzak nabarmen aldatu direla gas naturalaren prezioa igo delako, eta, beraz, kontratistaren errurik gabe kontratuarekin jarraitzeko ezintasun nabarmen eta aipatua dagoela.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E60008FDCF00Y6M2N3Z6J8F0

Sinadurea eta data
NEREA LOPEZ ANGULO-IDAIZKARITZAKO A.O.T - 22/03/2022
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 22/03/2022 12:32:17

EXPEDIENTE :: 2019KON_ZEN_0003
Data: 20/05/2019
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea: Erregistro nagusia



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E60009004F00I2M2C3M0W1F5

Sinadurea eta data
JURDANA URIARTE LEJARRAGA-IDAIZKARI NAGUSIA - 23/03/2022
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 23/03/2022 08:49:37

EXPEDIENTE :: 2019KON_ZEN_0003
Data: 20/05/2019
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea: Erregistro nagusia

CSV: 07E60008FDCF00Y6M2N3Z6J8F0



Berriro ere, ezin dugu ondorio horrekin bat egin.

Arriskuaren eta menturaren printzipioa kontratuaren izaera aldaezinaren adierazpen bat da, eta haren emaitza ekonomikoen ausazkotasun-elementu bat da, Auzitegi Gorenaren 2015eko urriaren 28ko epaiaren arabera (2785/2014 kasazio-errekurtsoa): *“significa que la frustración de las expectativas económicas que el contratista tuvo en consideración para consentir el contrato no le libera de cumplir lo estrictamente pactado ni, consiguientemente, le faculta para apartarse del vínculo contractual o para reclamar su modificación.”*

Zentzu berean, eta Auzitegi Gorenaren 2016ko uztailaren 20ko epaiaren arabera (229/2015 kasazio-errekurtsoa): *“en lo que concierne a las alteraciones de la economía del contrato, la expresa aplicabilidad del principio de riesgo y ventura hace que el contratista, al igual que se beneficia de las mayores ventajas que en relación con las previstas le depare la dinámica del contrato, ha de soportar la mayor onerosidad que para él pueda significar su ejecución.”*

Jakina denez, eta aplikatu beharreko araudiarekin bat etorritik, kontratu publikoak kontratistaren arrisku eta mentura printzipioaren mende daude (SPKLren 197. artikulua²).

Ondorioz, kalkulaturako mozkin murrizten duten edo galerak ere eragiten dituzten gerora sortutako inguruabarrak gertatzen badira, ondorio horiek kontratistaren kontura izango dira, eta kontratistak ezin izango du prezioaren igoerarik edo kalte-ordainik eskatu (Auzitegi Gorenaren 2009ko urriaren 27ko epaia, 763/2007 kasazio-errekurtsoa).

Aurreikusi ezin den arriskua egoteari dagokionez, SPKLk ez du kontratuaren oreka ekonomikoa hausteko arrazoi gisa aurreikusi (aurreko arauak ere ez zuten halakorik egin).

Hala ere, jurisprudentziak onartu eta aintzat hartu du berroreka-iturri gisa aplikatzea, nahiz eta irizpide murriztaileak erabili diren, eta, horregatik, kasuistikoak, obra-kontratuetan, obra-emakidako kontratuetan eta iraupen luzeko zerbitzu-emakidako kontratuetan aplikatzeko modukoak.

Ildo horretatik, Auzitegi Gorenaren 2015eko urtarrilaren 28ko epaiak (449/2012 kasazio-errekurtsoa) aurreikus ezin daitekeen arriskua hautemateko bete behar diren baldintzak zehazten ditu: a) hitzemandako prestazioaren kostu handiena eragiten duen egitatearen aurreikusezintasuna; b) kontratua betetzeko aukera, aurreikusi ezin den zirkunstantzia gertatu arren, eta kontratuan aurreikusitako mekanismoak ez dira nahikoak hura berrikusteko; c) nabarmen handitu behar da prestazioaren kostu-tasa, inguruabarrak aldatzearen ondorioz; eta, beraz, oso argi ikusi behar da zer eragin izan duen kontratu horrek, eta, beraz, oso garrantzitsua izan behar du.

² SPKLren 197. artikulua: *“La ejecución del contrato se realizará a riesgo y ventura del contratista, sin perjuicio de lo establecido para el contrato de obras en el artículo 239.”*



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E60008FDC00Y6M2N3Z6J8F0

Sinadurea eta data
NEREA LOPEZ ANGULO-IDAIZKARITZAKO A.O.T - 22/03/2022
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 22/03/2022 12:32:17

EXPEDIENTE ::
2019KON_ZEN_0003
Data: 20/05/2019
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E60009004F00I2M2C3M0W1F5

Sinadurea eta data
JURDANA URIARTE LEJARRAGA-IDAIZKARI NAGUSIA - 23/03/2022
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 23/03/2022 08:49:37

EXPEDIENTE ::
2019KON_ZEN_0003
Data: 20/05/2019
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia

CSV: 07E60008FDC00Y6M2N3Z6J8F0
0009004F00I2M2C3M0W1F5



Epai bera guztiz argigarria da, halaber, Auzitegi Gorenak krisi ekonomikoak arrisku aurreikusezinaren kontzeptuan txertatzen diren ala ez erabakitzeko ezarri duen irizpideari dagokionez, eta, beraz, kontratuaren oreka ekonomikoa hausteko arrazoi diren, aldaketa posible eginez. Horrenbestez, esandakoa berretsiz, Auzitegi Gorenaren 2014ko otsailaren 4ko epaiak (486/2011 kasazio-errekurtsoa) honakoa dio:

“Es hecho notorio que las crisis económicas acontecidas en los siglos XX/XXI han sido cíclicas, así como que el desarrollo urbanístico no siempre progresa, sino que, en ocasiones, se paraliza. No constituye, pues una realidad inesperada, aunque pueda desconocerse el momento exacto de producción. Actualmente llevamos años en crisis económica, pero en época no muy lejana, década de los 1990 hubo otra crisis económica mundial que también afectó a España provocando reducción de la actividad económica y de consumo. Por ello los estudios de viabilidad de una autopista han de prever no solo un contexto, el alza, sino también las circunstancias económicas que pueden provocar la disminución del consumo.”

Interesgarritzat jotzen dira, halaber, nahiz eta obra kontratuei buruzkoak izan, Auzitegi Gorenaren hurrengo epaiak: 2008ko apirilaren 18koa (errek. 5033/2006), 2008ko apirilaren 25ekoa (errek.: 5038/2006), 2008ko maiatzaren 6koa (errek.: 5111/2006), 2008ko ekainaren 4koa (errek.: 5093/2006), 2009ko urriaren 27koa (errek. 763/2007), 2009ko azaroaren 10ekoa (errek. 930/2007), eta 2020ko irailaren 9koa (errek. 2394/2016). Epai horiek, modu abstraktuan, prezioen igoera ustekabeko gertaera gisa kalifikatu daitekeenik ez ukatu arren, kontratua egin zenean kontuan hartu ezin izan zena, uste dute petrolotik eratorritako produktuen prezioak liberalizatuta zeudela 1986ko urriaren 1eko Ogasun Ministerioko Aginduaren arabera, eta horien balizko igoera arrisku bat izan zitekeela, bai eta onura bat ere, kasuan kasu.

Ildo beretik jo du Gaztela-Mantxako Erkidegoen Batzordeko Administrazioaren Kontratazio Batzorde Nagusiak azaroaren 29ko 10/2021 txostenean, antzeko kasu batean honako hau xedatu baitu:

“(...) la subida de precios de las materias primas entraría dentro de la previsibilidad que haría responder al contratista de las obligaciones a que se hubiera comprometido en virtud del contrato y de la aplicación del principio de riesgo y ventura en la ejecución del mismo. Los contratistas deben ser conocedores de las fluctuaciones de los precios tanto al alza como a la baja; y así, igual que si bajan estos precios, el contratista se ve beneficiado con ellos aumentado su lucro, también debe soportar que la subida de precios pueda suponer una minoración del precio del contrato (riesgo y ventura).”

Kasu honetan, gasaren prezioaren igoera da, merkatuaren beraren eraginez, prezio libreekin, goranzko aldaketa izan duena, duela urte batzuk gertatu zen bezala. Horrenbestez, oso litekeena ez bada ere, gerta daiteke egoera hori, bere garaian petrolioaren eta haren eratorrien igoerarekin gertatu zen bezala. Inguruabar hori, agian, lizitaziora aurkeztu ez ziren beste lizitatzaille batzuek baloratu zuten, agian ezin zutelako kontratua hasieran aurreikusitako prezioekin gauzatu. Horregatik, ezin da onartu,



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E60008FDCF00Y6M2N3Z6J8F0

Sinadurea eta dataa
NEREA LOPEZ ANGULO-IDAIZKARITZAKO A.O.T - 22/03/2022
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 22/03/2022 12:32:17

EXPEDIENTE ::
2019KON_ZEN_0003
Data: 20/05/2019
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea:
Erregistro nagusia



CSV: 07E60008FDCF00Y6M2N3Z6J8F0
0009004F0012M2C3M0W1F5



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E60009004F0012M2C3M0W1F5

Sinadurea eta dataa
JURDANA URIARTE LEJARRAGA-IDAIZKARI NAGUSIA - 23/03/2022
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 23/03/2022 08:49:37

EXPEDIENTE ::
2019KON_ZEN_0003
Data: 20/05/2019
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea:
Erregistro nagusia



kontratatik nahi duen bezala, aurreikusi ezin den arrisku baten aurrean gaudenik.

Laburbilduz, aurreko guztiagatik, ezin da errekurtsogilearen alegazio hau aintzat hartu.

d) Multienergía Verde SLren jardun arduratsua, hornidura-puntuak TUR enpresari lagatzea beharrezkoa baita

Enpresa esleipendunak uste du ez dela bidezkoa kontratua suntsiaraztean kontratistaren errua deklaratzeko, gas naturalaren hornidura eten zenean ez baitzen inoiz hornidura eteteko inolako arriskurik izan, hornidura-puntuak TURari igortzen baitzaitzaizkion, hornidura bermatzen bazen.

Kontu horrek ez du inola ere salbuesten kontratuaren betebeharrak ez betetzetik, hau da, gas naturala kontratuan ezarritako baldintza eta prezioekin hornitzetik.

Horregatik guztiagatik, ezin da inola ere baliozko deskargu-arrazoitzat hartu, aztergai dugun kontratua suntsiaraztean erruduntasun-adierazpena egin izanaren aurrean.

e) Erruduntasunik eza. SPKLren 213.3 artikuluko zehapenak ez aplikatzea

Bosgarren alegazioan, enpresa esleipendunak hurrengo dio: *"(...) dado que el incumplimiento del contrato ha sido motivado por circunstancias sobrevenidas e imprevisibles que han hecho imposible el cumplimiento del mismo, que constituyen causa de fuerza mayor o al menos un riesgo imprevisible, no procede apreciar culpabilidad alguna en el incumplimiento de Multienergía Verde S.L. por lo que procede la aplicación de las penalizaciones."*

Horri dagokionez, eta aurreko ataletan adierazi den guztia kontuan hartuta, argi dago hornidura alde bakarrez uztea eta uko egitea, aurretiaz udalari jakinarazi gabe, kontratua aldatzeko edo kontratuaren oreka ekonomiko-finantzarioa berrezartzeko erreklamaziorik, izapiderik edo eskaerarik egin gabe, eta beste hornidura bat kontratatuzko kudeaketarik edo saiorik egin gabe, edo kontratua burutzeko geratzen den hiru hilabeteko epea betetzeko izango litzatekeen kaltea egiaztatu gabe, MULTIENERGIA VERDE S.Lren erru zuzena besterik ez da.

f) Administrazioaren berezko egintzak

Azken alegazioan, MULTIENERGIA VERDE, S.L.k argudiatzen du, udal honek bere egintzen aurka ari dela kontratua suntsiarazteko prozedura kontratistaren erruz abiarazita, hurrengo adieraziz: *"diferentes administraciones vienen reconociendo la grave y extraordinaria situación de los mercados internacionales de la energía y, en concreto, el incremento brusco y sin precedentes del precio del gas natural en el mercado nacional y en los mercados internacionales, así como la previsión de que ese incremento de los precios se mantenga en el tiempo."*

Hala ere, kontuan hartu behar da errekurtsogileak udal honekin zerikusirik ez dituzten erabakiak aipatzen dituela, eta, beraz, ezin direla inola ere administrazio honen egintzat hartu. Hori dela eta, ezin da ulertu udala egintza horietara lotuta dagoenik.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E60008FDC00Y6M2N3Z6J8F0

Sinadurea eta data
NEREA LOPEZ ANGULO-IDAIZKARITZAKO A.O.T - 22/03/2022
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 22/03/2022 12:32:17

EXPEDIENTE :: 2019KON_ZEN_0003
Data: 20/05/2019
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E60009004F00I2M2C3M0W1F5

Sinadurea eta data
JURDANA URIARTE LEJARRAGA-IDAIZKARI NAGUSIA - 23/03/2022
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 23/03/2022 08:49:37

EXPEDIENTE :: 2019KON_ZEN_0003
Data: 20/05/2019
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

CSV: 07E60008FDC00Y6M2N3Z6J8F0
0009004F00I2M2C3M0W1F5



Horri dagokionez, errekurtsogileari gogorarazi behar zaio toki-erakundeek autonomia dutela beren interesak kudeatzeko, Espainiako Konstituzioaren 137³. eta 140⁴. artikuluetan xedatutakoaren arabera. Horren ondorioz, ez daude gainerako administrazio publikoen mende, ez hierarkikoki ez funtzionalki, lurraldekoak edo instituzionalak izan; beraz, ezin dira lotuta geratu horiek antzeko kasu bati buruz hartzen dituzten erabakien ondorioz. Horregatik, argi dago norberaren egintzen doktrina aipatzeak ez duela inolako oinarri juridikorik.

Aurrekoa kontuan hartuta, kontratua kontratistaren erruarekin suntsiarazteko akordioan ez da urratzen Bermeoko Udalaren egintzen doktrina.

Ondorioak

Horiek horrela, **EZETSI** egin behar da **MULTIENERGIA VERDE, SL** enpresak aurkeztutako berraztertze-errekurtsoa, txosten honetan azaldutako argudioak direla medio.

Hori da nire ustea, zuzenbidean oinarritutako bestelako irizpideen kalterik gabe.

Orri oinean, sinadura eta data.

³ Espainiako Konstituzioaren 137. artikulua: *“El Estado se organiza territorialmente en municipios, en provincias y en las Comunidades Autónomas que se constituyan. Todas estas entidades gozan de autonomía para la gestión de sus respectivos intereses.”*

⁴ Espainiako Konstituzioaren 140. artikulua: *“La Constitución garantiza la autonomía de los municipios. Estos gozarán de personalidad jurídica plena. Su gobierno y administración corresponde a sus respectivos Ayuntamientos, integrados por los Alcaldes y los Concejales. Los Concejales serán elegidos por los vecinos del municipio mediante sufragio universal, igual, libre, directo y secreto, en la forma establecida por la ley. Los Alcaldes serán elegidos por los Concejales o por los vecinos. La ley regulará las condiciones en las que proceda el régimen del concejo abierto.”*



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E60008FDCF00Y6M2N3Z6J8F0

Sinadurea eta data

NEREA LOPEZ ANGULO-IDAIZKARITZAKO A.O.T - 22/03/2022
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 22/03/2022 12:32:17

EXPEDIENTE ::
2019KON_ZEN_0003
Data: 20/05/2019
Lekua: Bermeon
Erregistro unidaidea:
Erregistro nagusia

CSV: 07E60008FDCF00Y6M2N3Z6J8F0
0009004F002M2C3M0W1F5



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E60009004F002M2C3M0W1F5

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA-IDAIZKARI NAGUSIA - 23/03/2022
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 23/03/2022 08:49:37

EXPEDIENTE ::
2019KON_ZEN_0003
Data: 20/05/2019
Lekua: Bermeon
Erregistro unidaidea:
Erregistro nagusia

